



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

t. +34 94 657 40 00
info@azti.es | www.azti.es

Lizitazio iragarkia

Sukarrieta, 2023ko martxoaren 6a

1. XEDEA

AZTI Fundazioak iragartzen du lehiaketa publiko bidezko lizitazio prozedura bat ireki duela, **AZTIren 3 zentroetako sarean zibererasoen aurrean trafikoa etengabe monitorizatzeko.**

2. ZERBITZUAREN IRAUPENA

Zerbitzua martxan jartzea **gehienez ere 4 asteko** epean kudeatuko da, kontratua sinatzen den egunetik zenbatzen hasita.

Kontratuak **hamabi hilabeteko (urtebete)** iraupena izango du, kontratua sinatzen den egunetik aurrera.

3. ESKAINTZA EKONOMIKOA

Lizitazio honetarako onartuko den gehieneko eskaintza ekonomikoa, **zazpiehun eta berrogeita hamar euro (750,00 €) hilean** da, zergak barne hartu gabe.

Fakturazioa hileroko egingo da, eta fakturak jaulkitzen diren egunaren ondorengo 60 egunetan ordainduko dira.

4. PROPOSAMENAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Jasotako proposamenak irizpide hauen arabera baloratuko dira:

| | |
|--|-----|
| Eskaintza ekonomikoa | %60 |
| Doitasun teknikoa | %25 |
| Hobekuntzak | %10 |
| Gizarte Erantzukizun Korporatiboko Politikak | %5 |





MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

5. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitatuzaileek Irati Velezi aurkeztu ahal izango dizkiote proposamenak ivelez@azti.es helbide elektronikoan eta AZTIren edozein zentrotan, iragarki hau AZTI Fundazioaren webgunean argitaratzen denetik **2023ko martxoaren 21eko 12:00ak arte**.

Lizitatuzaileek helbide honetara jo ahal izango dute **informazio tekniko** gehigarria jasotzeko:

AZTI

Norentzat: César Idokiliz

Tel. 34 656 78 49 78

Mail: cidokiliz@azti.es

6. ESLEIPENA

Eskaintzak aurkezteko adierazitako egunean jaso ondoren, 15 laneguneko epean, AZTI Fundazioaren webgunean argitaratuko da lizitazioaren emaitza.

7. KONTRATAZIORAKO BALDINTZAK

- Hautatutako erakundea, AZTIrekiko zerbitzuak dirauen bitartean, lan, Gizarte Segurantzaren eta Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko du, eta, dagokionean, enpresa jarduerak koordinatu beharko ditu, 171/2004 Errege Dekretuaren arabera, ezarritako prozedura eta espezifikazioei jarraituz (hemen eskuratu daitezke <http://www.azti.es/es/coordinacion-de-actividades-empresariales/>)
- Hautatutako erakundeak, beste edozein agiri alde batera utzita, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du kontratua formalizatu aurretik.



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

- Hautatutako erakundeak kontratua formalizatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu beharko du gehienez 20 eguneko epean, esleipena egiten denetik zenbatzen hasita. Dokumentaziorako, hautatutako erakundeak, www.azti.es webgunean argitaratutako Kontratazioari buruzko Barne-Araudia bete beharko du.
- Baldintza teknikoez eta administratiboez gain, AZTIk positibo baloratuko ditu Kalitate, Segurtasun eta Osasun, Ingurumen, Mugikortasun Jasangarri eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboko politikei eusten dietela frogatzen duten hornitzaileei.

Hornitzaileak politika horiek egiaztatzeko aukera ematen duten dokumentuak edo erregistroak sartuko ditu bere proposamenean (kalitate ziurtagiriak, ingurumenekoak, gizarte erantzukizuneko gaietako jardueri buruzko dokumentazioa, etab.).

8. DATUAK BABESTEKO ERREGELAMENDU OROKORRA

Arduraduna: Izena: AZTI FUNDAZIOA - IFK: G48939508 Posta helbidea: TXATXARRAMENDI UGARTEA Z.G. SUKARRIETA (BIZKAIA) Telefonoa: 946574000 Helbide elektronikoa: lopd@azti.es.

"AZTI FUNDAZIOAn ematen diguzun informazioa tratatzen dugu, zure eskaera egiteko, zerbitzuak fakturatzeko eta merkataritza harremanak mantentzeko. Zure datu pertsonalen tratamenduaren oinarri juridikoa merkataritza harremanak izateko eta zerbitzuak emateko dugun interes legitimoa da, eta behar-beharrezkoak dira helburu horretarako. Emandako datuak gorde egingo dira merkataritza harremanak dirauen bitartean edo legezko betebeharrak betetzeko behar diren urteetan, eta, harremana amaitu ondoren, erantzukizunak sor daitezkeen neurrian. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharren bat dagoenean izan ezik, ezta zerbitzu tekniko eta informatikoen eta auditoretzaren hornitzaileei ere. Halaber, ez du inola ere zure datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik egingo. Eskubidea duzu AZTI FUNDAZIOAn zure datu pertsonalak tratatzen ari garen jakiteko; ondorioz, eskubidea duzu zure datu pertsonaletan sartzeko, datu okerrak zuzentzeko edo ezabatzeke eskatzeko, datuak jada beharrezkoak ez direnean, baita ere aurkartzeko, mugatzeko eta lekualdatzeko eskubidea ere, datuen babesari buruz aplikatu beharreko araudian xedatutako terminoetan, goian adierazitako helbidera idatziz jakinaraziz. Halaber, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute kontrolerako agintaritza eskumendunaren aurrean.

9. BALDINTZA TEKNIKOAK

Kontratu honen bidez, trafikoa etengabe monitorizatu nahi dugu, AZTIren 3 zentroetako sareen zibererasoen aurrean (SIEM).

Sistema zentro bakoitzean zunda bat inplementatzean datza. Zundek ez dute erasorik jaso behar erakundea konprometitu ez bada. Beraz, zunda-multzo horrek egindako edozein detekziok alerta automatiko bat abiaraziko du, kontratatutako enpresa momentuan AZTIrekin harremanetan jartzeko. Hasieran, eskuz profilatuko da, sarearen barruko ohiko konexioak aztertzeko.

Zundak ezarri ondoren, hainbat datu lor daitezke sarea profilatzeke, eta, horrela, alarma automatizatuak sor daitezke sarearen erabilera normaletik ateratzen diren portaeretatik abiatuta:

Lortutako datu horiei guztiei esker, arauak sortzeko konpromiso-adierazleak sor daitezke:

Generikoak:

- MAC helbide berria
- IP helbide berria
- ARP ordezteak
- Portuak eskaneatzea

Komunikazioen historian oinarritutako testuinguruak:

- Orain arte erabili gabeko portua
- DNS kontsulta bat egiten zaio domeinu-izen berri bati
- Trafiko-bolumenaren aldaketak/lotura kopurua historikoarekiko, honengatik:
 - ✓ Jatorria/helmuga host
 - ✓ Jatorrizko portua/helmuga
 - ✓ Komunikazio-fluxua
 - ✓ Ordu-tartea

Urrakortasunen azterketan oinarritutakoak:

- Malware-payload ezagunak inbentariatutako zerbitzuetarako
- Protokolo eta ataken zerrenda zuria
- Payloaden zerrenda beltza protokoloka



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

Protokolo bidezko espezifikoak

- Irakurtzeko bakarrik
- Komunikazioei berriro ekitea
- Kontagailuak eta diagnostiko-erregistroak ezabatzea
- Gailuaren identifikatzailea irakurtzea
- Paketearen luzera okerra
- TCP/502 ez den portu bidezko komunikazioa
- Delay salbuespen-kodeen arabera
- Funtzio-kodearen eskaneatzeak

Hilero bilera bat egingo da AZTIrekin, eta bertan ondorio horiek jasotzen dituen txosten bat aurkeztuko da.